

Erantzuleak

(Batzar baten ostean)

Gaur gabea, batzar berezi bat euki dogu mutillok, eleiz ondoko «Gazte-leku» alaian. Mutillok bakarrik. An nintzan ni be. Erriko apaiz gaztea buru, ta beste guztiok aren inguruko. An esan dira esatekoak! Inok ez dau miñña totelik euki. Alan be, tañu ontako batzarretara zerbait gertautu joatea egoki litzateke; bestelan, bakotxak ondoen deritxonetik dau jarioa. Zelako istilluak eta ur-puspuloak! Moltzoko izatea baiño obe, nik uste; baiña, naiz jarraikari itsu izateak naiz erantzule ausart izateak ba-dabez euren alderdi makalak.

Atea edegi ta etxe barrura nazareko, bota daust Edurne'k:

—Zelan mutillok? —Neskak be batzar ortara joatekotan ziran, baiña azken orduan mutillok bakarrik artu dogu deia.

—Ondo! Mordoa batu gara, ta guztiok barritsu. Gaur, munduan «erantzule» —kontestatario— deritxenetarikoak izan gaituzu. An ezta inor ixildu. Ainbat gauza arro-

tu dira, ta astindu ta arrotu bearrak, nik uste. Biotz barruan daroaguna, iruntsi barik, kanporantz botatea da onena. Orixe egin dogu gaur. Ta batzarra amaikeran, danok alai ta adiskide. Gaur guztiok alkar izketa eskatu oi dogu gauzak erabagiteko.

—Gauza garrantzitsurik?
—Edurne'k niri.

—Askol! Abade langilleak, Ebanjelio igiera...

—Esan, esan! Zer erabili dozue fabrika ta tailerretan dabiltzan eleiz gizonakaitik?

—Atera da oin gartxorik. Bakotxak izan bera erizmena. Ta eritxia azaltzerakoan, urte batera oi gara. Gai onetan be, orixe. Aren ta onen esanak txortaturik, baiña, au esan gengik: apaiz langille orrein lana ez da inondik saiets ta bazter iztekoa. Baiña gure artean beintzat beste zerbaiten jardun bearra dabe eleiz-gizonok, abade naiz praille. Gure artean bada nok lan egin, eta eleiz gizon bat ortan ari izatea, norbaiti lana kentzea litzatekela dirudi. Euskalerrian apaiza —naiz- ta beste eskualde batzuetan bai— ezta ondo ikusia lantegi zilloetan. Gure errie-

tako langilleak ba-dakie, ta ortan dagoz, apaizak ba-dabela euren lan-arlo berezia, batez be azken urteotako jente-ugaritze izugarriari begitu ezkerok; eleizeak, ikastolak eta olakoak dira apaizen berezko, ta batez be gaurko, lantegiak. Zelan on egin euskal erriari? Euskaldunon arimak jakituriz jantziaz, ezjakiñai erakutsiaz, beartsuai lagunduaz, aberatsak txiroagotu ta txiroak aberatsagotzeko bideak arrotuaz. Au, oster, fabrika zirkulitik baiño obeto egingo dau bere parroki ta eskolatik. Beste asmo batzuk darabillezala? Zeintzuk? Zelakoak?

—Ederto!

Bide Barriak

—Bide barriak eregi bear dira gaur. Bat auxe: gauza asko ei daukaguz, orma zar lez, inguruan oiturak jarrita. Oiturok lengo gizaldietarako onak zirala be, gaur ez diñoskue ezer; beraz, gizarte zarreko egitura asko eratxi bear ei dira: egitura orreitatik urten, badaezpadako sare arteak itxi. Bestelan, ez ete gara geu be gizarte makur orren otsein ta eusle? Ez ete gara gaiztakeri orren estalgi. Irabazteko galdu egin bear, baita bi-

zia bera arriskuan ipiñi be. Ez ete eban Kristok esan: «Ez naz bakea ekartera etorri, burruka baiño»? Gizarteari Aren irakatsia sartu nai ba'dautsagu, burruka egin bear Aren antzera. Ai!, ta Kristori zenbat eretxi ta gauza aurrean jarri yakozan! Illun argia piztu-azteko, orduko gizarte lepo-gogorrean, bere irakatsia erein ta sartzeko gorriak ikusi bear izan zituan. Azkenez, orduko lege-gizonak —erriak ez— gurutzerako epaitu eben. Eta erriagaitik, zeruratzerat etorri zan erriagaitik abean ilzan. Nagusi arein zuzen-bidez legetik kanpo ebillen; baiña gizona ez da zintzo eginbidez. Kristoren sinister baiño. Orta, ez gaitazan lege sare artean bizi. Zintzotasuna dakarskunt egiteko beharrezkoak baiño.

Fedean otz

—Eta zintzotzen gaitun fede ori be, gaur ez ete daukagu naiko loiz.

—Ekaitz osteko iturri urak: loi, naasi ta uber. Onetzaz eztabaida bizia izan dogu. Bakotxak bere ikus-aurkitik zirti-zarta jorratzen eban. Gure kristau fedea erkinduta daukagu, eutsia ta gogoeta larregikoa egiñik. Naizta kezka bizi, erria moteldua daukagu, lo zo-

rroan sartua. Or doguz noizik bein, goi-argiz sutatuak dirala diñoenak, igarleak noski, erria esnatu ta iratzarri nairik. Ondo datoz olakoen ezker-eskumarako dei-garrasiak, ondo dago onein izkera gartsua, kea dariona; mundu au, alan be, ondoegi eratu dago, patxada ta aukera geiegiz bizi gara, garrasi batzukaz azpikoz gora jarri al izateko. Beste zerbait bear da —iñoan batek—; gizonak eta emakumak bear doguz, erria zuzentzen dakienak, burruka luze ta gogaikarrian lan egiteko gertu dagozanak; zapalketaren kontra, zuzentasunik ezaren kontra, gosearen kontra, egarriaren kontra, ezereen ikara barik burruka egiteko.

—Baiña nor legoke gertu ortarako?

—Ondo diñozu: nor legoke gertu? Ortarako, burruka ortarako —argi esan zan— gertaketa bikotxa bear da; biotz gertaketa ta adimen gertaketa. Biotzez gertatu, biotzez indartu ta sendo-azo. Biotza baita egite arrigarri guztien iturri. Biotz kementsuaren jabe diran gizon eta emakumak nai ta ez bear doguz arlo orreri arpegi emoteko. Ta ondoren ikasi bearra, geure adimena indartu, jantzi ta ornidu bearra. Ez gero eskoletako

jakituri soillez; ori ez da naikoa. Bizi garean gizartea, mundua ezagutu bear da; onek ditun premiña ta bear-izanak aztertu, ikasi ta zeaztasun osoan ezagutu. Marx'ek berak orrela egin eban: gaztetan iraultzalari izanik be, gero, liburutegi baten sartuta, ogetamar urtez, liburu asko irakurri zituan.

—Zertako?

—Liburu bat idazteko.

—Orregaz naikoa ete?

—Ezta. Burua jakituriz apaindu-takoan, bide bat aritu bear da. Ez zuri, ez baltz; ondoegi edo aregaz, oni erantsia edo iri erantsia; bigaz ezin baitegu burdini jokatu, bestelan saltzaille puztustel, etoi ta azpikari gintzailen. Oriakorik, barriz, ez dau amon gure burrukak. Gizartea zure burruaren mende dagoalako idazu burruka. Zuzentasuna billatu burruka, beraz; bere alde burruaren zuzentasuna izan be, burruka arlo orreri.

Zuzentasunaren billa

—Zelan billatu zuzentasuna, justizia?

—Gaur, batez be, onelaxe: Alkartasun indartsuan guztiok bat egiñik, moltzotu ta alkarrekin koparillo estua osoturik. Ezta gatxa zuzenik-eza salatu ta txarretsi az agiri batzuk botatea: irazeko laiñoak, besterik ez. Asmo bardiñez azkorturik, batu egin bear, eratu ta girotu, guztion artean ore pillo naasia arrotzeraiño; olan zapaldu ta menderatuko dogu gaur ezkereskuma daukagun zuzenik ezaren mamutzar ikaragarria. Or dragoi bat, guztiz itzela, zazpi adarduna; ots: gizarteko egitura ta estrukturarik asko. Oneik daukie gure gizartea ezeuki gorrian, lanez, jakituriz, janez gabetua. Ari ta on laguntzen yakola? Lan andiak bitartuten dirala? Alkartasunak eman nai dau gaiztakeria egin gura daren tokian, antxe ipiñi bear dala gure biotzaren kemena, bear dala raitzeko. Itz geiegi darabilgu burruka. Burruka bear dogu gaur, gaurko trebetasuna, gatxa eratsi ta erdagokion lekuan jarteko. Bagoz ala ez gara? Federik ba' dogu? Biotz ez dogu? Fedez bizi ba' gara, indartsu gara. Zuzenik ezaren mendiak zirkiñik ez ba' dagi, ostera, ez gara fededun.

—Argi ta garbi, zer da gizartea?

—Ona, zerbait esango dautzut, sakelean daroadan orri au iraku-

rriaz. Euskal idazle trebe batena dozu. «Gizartea —diño—, gizon artea duzu. Gizonik ez dagoan tokian ez dago gizarterik. Eta gizonari gizon izaten etzaio uzten... Guziok onesten dugun gizarte berritan, berriz, gizonak gizon izan bear du. Bere iritziak, bere jokabideak, bere eginkizunak dituan gizona. Bakoitzak bakoitza izan bear du, Askatasunez eta noratasunez ornitutakoa. Jakinduniaz eta ontasunez jantzia. Besteengana hain mallastan-itzalez beteaz. Besteekin niñekin kupiduzen dala, Bidegabekerien eta zapalketaren aurkari bitzen dala. Ona ta lortu jakituz gertatu. Probasarik ezin burruka erantsi. Onda burruka erantsi. Biotz gertatu, biotzez indartu ta sendo-azo. Biotza baita egite arrigarri guztien iturri. Biotz kementsuaren jabe diran gizon eta emakumak nai ta ez bear doguz arlo orreri arpegi emoteko. Ta ondoren ikasi bearra, geure adimena indartu, jantzi ta ornidu bearra. Ez gero eskoletako

Alkartu

—Alkartasun ori, alan be, ames legor bat ez ete?

—Ez dago esan eziñik. Zur jotzen ezpada, bai. Nora daroan ikusten eztan su-adar edo zuzi bateg, naiz-ta kartsua izan, amildu gaik ez jaus-leku beera. Ortik, balen esana, ikasi bearra: biotzak ez ezik, adimenak, errazoiak zuzendu bear dau gauzea, naita biak bearezko izan. Igiera au bedi egi biribilletan oiñarritua; bestelan, alkarre ortako asko, len uneko garra moteldu ondoren, neurri bako atxikitasun sututik txulut-egite geiegira igaroko dira, errez bai errez. Zer besterik gertatzen ete yake gaurko gazte askori? Arloari oratu bai bero be bero, baiña bein goan ezpa-dakuse izerdiaren ordaiña, pot-egiñik geratu oi dira. Arlo gaitzak, alan be, arnas aundia bear.

—Oiñarritu... Zer da oiñarritzea?

—Etxe bat jasoterakoan, azpian oiñak lez arri-mokor sendoak jarten dira aurretik; orrela bear naitaez, etxearen pixu guztia azpi orrek daroake ta. Mogimentu bat sortzean be, mogimentu orrek eraberean egiazko oiñarriak bear ditu; ostantzean, aizeari ots egin edo ustekizun ustel baten atzetik ibiltea litzakigu. Laster dakargu onek porroterako bidea, ta atzeraka as-

ten gara bertatik. Eta or gure biotz-garra, erregarri zindoak utsemonda, itzal-beera doalarik.

—Gure erriko mutillak ba ete dabe olako gogai argirik?

—Zer erantzungo? Bai ta ez. Gure parroku jauna, argia da, dakigunez, eta zuzenki osotu eban gauzea. «Alkartasun ori osotu ta aurrera eroatean —iñoan herak—, akats asko daukaguz, norbekerigeiegi, errez lilluratzen gara, ez dogu bear bezela alkar maite». Onako pentsamentuak sakonki azaldu euskuzan.

Barriztau

—Erantzule asko?

—Lar. Batzarreko guztiok geunkan zer esana. Askok gertakizun aundi barik, tamalez Batzuk Eleizeari egozten eutsoen erriurik geiena, beste batzuk estatuak, gaurko egoera larri oni begira. «Eleizea bera be ez al du errudun?» —iñoen batzuk, eta eleiz-gauza guztiak albora izteko sistema erakusten eben. Errezena, baiña, orixe litzateke. Eleizea sistema bat dala? Edo-ta erri agintari, industri ta abarren sistemakaz dabillela?

Ori iztea, Eleizea iztea zerik errezena, dudarik bage. «Ez, guk, Eleizea garbitu ta barriztu egin bear dogu», iñoen beste batzuk. Zelan? Kristoren jarraile zintzo izanaz, Aren dotriña ta irakatsiak ezagutuaz; olan obeto sartuko dogu gizaratean bear dauan maitasuna, bear dauan zuzentasun argia. Iru mailla aitatu ziran an, alkar artuta lanari ekiteko: 1.º, norbere barrua barriztatu; 2.º, Kristorenak garean ezkerre, kristau lez, eleiztar lez barriztatu, ta 3.º, erritar garenez, geu ta erria barriztu.

—Orduan, barriztatu bearra, ezta?

—Bai, ta oso-osokoa. Gizartean gagoz, eta gizarte barri bat egin bear da; edo, obeto, lengo zar au, kaltekor dauan guztiz garbitu; lenengo barrutik, gero kanpotik. Lan au, barriz, geuk osotu ezik, ez dauku iñok egingo, ez goikoak ez beekoak. Eta onean egin bear dogu, gogorrean ezpaita iñor menderatzen. Gizona, oso-osorik jallituriz, alkar maitasunez askatasunez jantzi bear dogu. Uneak edo ez-jakiñai argia eskiñi, lez duguzan nak itzartu, ardua bakoak birkonazi. Ona gure lana. Ta guzti au errian osorik sartuta egin bear dogu, erria —geure anaiak— egi bi-

dez arteztu ta eroanik. Irudi pertxenta bat: «Goldeak jiratzen du lurra. Baiña idiak eramaten dute goldea. Eta itzaiak zuzentzen ditu idiak. Baiña ez etxetik edo tabernatik, soroan edo landan idiakin batera aruntz eta onuntz ibilliaz baizik».

—Au da: danok batera lanari lotu bear.

—Bai, ta olan gaurko egoera aldatu. Geuk, geure gogoz, geure bitzita barria irun.

—Lan ori luzarokoa izango ete?

—Dударik bage. Gauza zailla da, beti be, norbere izaera barriztaztea. Bide artezez gabiltzala uste dogu guztiok. Guk utsik edo okerririk? Bai zera! Iñoren begian errez ikusten samar ezerezak, baiña geurean abe aundirik bere ez. Orrelakoak gara. Geure griñak eta ijerak, alan be, geure pentsakera ta ikusmirak aldatu, barriztu ta arri-mokor ikeragaitz gaiñean finlatu bearra daukagu; bedar gaiztoak —gaitza— geure barren-solotik erauzi ta azi emonkorra —ona— irran erein, landea ondo itaillatu ondoren. Eta azi orrek frutua ekarrirakoan, orduantxe asi bear dogu eleizea —geure kristau-

tasuna— barriztuten; burruka la-
tza, baiña noraezekoa. Arriskurik?
Baita; baiña egin bear dana. «Elei-
zea oso bikaiña da —iñoan batzar-
kide batek—, baiña gaur, gizaldien
erdoia edo, lausoturik daukagu;
bedar txarrak be, bere alien zaka-
rrak or-emen edatu ditu. Guztion
artean barriztu bear.

—Barri Ona be bai?

—Ez; Kristo'ren mezua, manda-
tua ona be ona da. Baiña sarri er-
dizka irakatsi oi dogu bera. Ta be-
re edertasun guztian irakatsi bear
da. Lan au, egia, ez dogu amar
egunean egingo; baiña, apurka
apurka, urteen buruz, igartzeke
doakez gauzak aldaturik. Gogor-
keria albora itxiaz; ez bakarrik be,
guztion arnasa ta kemenez baiño.
Ez itz soil ta utsalez; mintzaera
apal, zorrotz, eragillez, bai. Elei-
zeak, bape bildur bagarik, dagon
lekuan eta dan moduan salatu bear
dau gaitza. Eleizeak, an eta emen,
zapalketa salatu bear dau, naiz ba-
tena naiz askorena; enda ilketa ta

bereizteak salatu bear ditu; Sor-
kalde Erdiko guda ta eriotzak,
Afrika'ko burruka ta urkatzeak;
Europa'ko ta mundu zabaleko nau-
sikeri, lege bako aginpide ta oin-
peratzeak, jo, lertu, zauritu ta ola-
ko ankerkeriak. Labur: gaitza sala-
tu bear dau, Kristok egin eban lez.
Eta olan jokatzeko azke euki bear
dauz bere eskuak. Azke barrutik,
eta azke kanpotik. Mundua olan
dau askatuko, azal eta mamin,

—Interesgarria benetan,

—Puntu guztiok ikutu doguz ba-
tzarrean, bakotxak eukana ta ekia-
na esanaz. Ikuspegi zabaleko ager-
tu dira gazterik geienak, zuzenta-
sunaren alde momentu guztietan.
Gazteok askok jente arriskutsu,
ezjakin, zalapartari ta naasletzat
gaukiez; gaur gabean alan be, ez
dira olan agertu gure-erriko muti-
llak. Ba-dakie nor nor dan; ba-
dakiez Eleizearen eta gizartearen
eskubide ta eginkizarrak.

Barrutia

Eguen-guren zoruna maifasunaren eguna

Maitasun billa
asaba illak
ezin litzakez berbiztu;
bake mutilla
izan dedilla
bakotxa bera, ziñestu;
alkarren maite
zar eta gazte
beti ta edonun agertu;
alkarren kalte,
naste borrhaste
larregi doguz aztertu;
gure artean
aurrerantzean
ikusí eziñak baztertu.

Beti burruka
beti oiuka
ezin gara alkar ikusi;
alkarren aurka
beti didarka,
norbera egiñik nagosi;
peura menpean
meura lurrean
gure guztia
adi gendulala erosi;
eta orretan
inortan arritza
ezin gindakela lortu;
ta berogian
bake sarran
Maitasun billa ta Maiz.